



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko maiatzaren 26a

69. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—10-23/CCO-00010. Cadreitako Udalaren 2021eko ekitaldiko kontu orokorrari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

**10-23/CCO-00010. Cadreitako Udalaren 2021eko ekitaldiko kontu orokor-
rari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Batzorde Iraunkor-
rrak, 2023ko apirilaren 4an egindako bilkuran,
erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Cadreitako Udalaren
2021eko ekitaldiko kontu orokorrari buruzko fiska-
lizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen
abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c)
artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoare-
kin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Adieraztea Cadreitako Udalaren 2021eko
ekitaldiko kontu orokorrari buruzko fiskalizazio-
txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-
an argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

AURKIBIDEA

I. SARRERA	4
II. HELBURUA ETA NORAINOKOA	4
III. IRITZIA, SALBUESPENEKIN	5
IV. IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN.....	5
V. AUDITORETZAKO FUNTSEZKO GAIAK.....	5
VI. AZPIMARRA EGITEKO PARAGRAFOA.....	6
VII. BESTE GAI BATZUEI BURUZKO PARAGRAFOA	7
VIII. BESTELAKO LEGE- ETA ERREGELAMENDU-ERREKERIMENDUEI BURUZKO TXOSTENA	7
IX. CADREITAKO UDALAREN ERANTZUKIZUNA	8
X. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	8
XI. MUNTAKO GOMENDIOAK	9
1. GEHIGARRIA. 2021EKO KONTU OROKORRAREN LABURPENA.....	10
1.1 2021eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria.....	10
1.2 Aurrekontuaren emaitza.....	11
1.3 Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria.....	11
1.4 Balantzea	11
1.5 Emaitza ekonomikoaren egoera-orria	12
2. GEHIGARRIA. CADREITAKO UDALA	13
3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA.....	14
4. GEHIGARRIA OHARRAK ETA FINANTZA-FISKALIZAZIOAN AURKITUTAKO BESTE GORABEHERA BATZUK	15
4.1 Aurrekontu orokorra	15
4.2 Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak.....	16
4.3 Kudeaketa-alor garrantzitsuak	16
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK	25
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA DELA-ETA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA	26

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, hari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2022ko bere jarduketa-programari jarraikiz, Cadreitako Udalaren 2021eko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra fiskalizatu du.

Azterketa lana 2022ko azarotik 2023ko urtarrilera bitarte egin zuen auditoretza-enpresa pribatu batek, eta Kontuen Ganberako talde batek —auditoretzako teknikari batek eta auditore batek— gainbegiratu zuen, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboekin lankidetzan.

Jarduketa horren emaitzak Cadreitako Udaleko alkateari jakinarazi zitzaizkion, egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Emandako epean, alegazioak aurkeztu ditu Cadreitako Udaleko alkateak. Alegazio horiek aztertu ondoren, txostenean jaso dira, eta behin betikoa bihurtu da txostena.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Cadreitako Udaleko langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

Txosten honetako datu ekonomiko guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Emandako datuek eta ehunekoek beti adierazten dute balio zehatz bakoitza biribilduta, eta ez biribildutako datuen batura.

II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Gure lanaren xedea da gai hauei buruz gure iritzia ematea:

- Ea 2021eko ekitaldiko kontu orokorrak, alderdi esanguratsu guztietan, irudi fidela ematen duen 2021eko abenduaren 31ko ondareari, finantza-egoerari, aurrekontu-likidazioari eta emaitza ekonomikoari buruz, aplikatzekoa den arau-esparruari jarraikiz eta, bereziki, bertan jasota dauden kontabilitateko eta aurrekontuko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

- Horrez gain, eta finantza-fiskalizazioaz denaz bezainbatean, Cadreitako Udalak legezketasuna bete ote duen aztertu da, langilerari eta administrazio-kontratazioari dagokienez. Horri buruzko ondorioak VIII. epigrafearan jasota datoz —“Bestelako lege- eta erregelamendu-errekerimenduei buruzko txostena”—.

Fiskalizazioaren norainokoa Cadreitako Udalaren 2021eko Kontu Orokorra da, zeinaren osagaiak, 273/1998 Foru Dekretuaren arabera, honako hauek baitira:

- Udalaren kontua:

- a) Aurrekontu-likidazioaren espedientea.
- b) Ekonomia-, ondare- eta finantza-egoeraren espedientea, zeina egoera-balantzeak eta emaitza ekonomikoaren egoerak osatzen baitute.
- c) Udalaren kontuaren eranskinak.

Legedia betetzea denaz bezainbatean, norainokoa dagokie txosten honen 4. eranskinean aipatzen diren laginetan berrikusitako eragiketei.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2021eko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruz behar diren egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

III. IRITZIA, SALBUESPENEKIN

Nafarroako Kontuen Ganberak, hari buruzko 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak baliatuz, Cadreitako Udalaren kontu orokorra fiskalizatu du. Kontu orokorrak osagai nagusi hauek ditu: 2021eko abenduaren 31ko balantzea, ekonomia-emaizaren kontua eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion aurrekontuaren likidazio-orria.

Gure iritziz, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" atalean norainokoaz azaldutako mugak izan ditzakeen eraginengatik ez bada, Kontu Orokorrak irudi leiala erakusten du, alderdi esanguratsu guztietan, ondareari eta Cadreitako Udalaren 2021eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-arloko printzipio eta irizpideei jarraituz.

IV. IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN

- 2021eko abenduaren 31n epe luzerako mailegu bat kontabilizatu da, 450.000 eurokoa, ekitaldiko inbertsioak finantzatzeko. Mailegu hori ez zen formalizatu 2022ko urtarrilaren 10era arte; beraz, 2022ko ekitaldiari dagokion eragiketa da. Eragiketa horrek eragina du 2021eko ekitaldiko kontu orokorreko kontabilitateko eta aurrekontuko egoera-orri nagusietan.

- Udalak ez dauka behar bezala identifikatu eta balioztaturiko udal ondasunen inbentariarik balantzeko ibilgetuaren balioari –12 milioikoa, 2021eko abenduaren 31n– sostengua ematen dionik.

- Gainditutako kredituak antzeman dira guztira zazpi atxikitze juridikoaren poltsatan, 448.465 euro egiten dutenak.

- Diruzaintza-gerakin negatiboak gertatuz gero, horiek zuzentzeko araudian aurreikusitako neurriak ez ditu hartu Udalak.

Kanpo-kontrolerako erakunde publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera egin dugu fiskalizazioa, eta, zehazki, finantza-fiskalizazioari buruzko ISSAI-ES 200 arauan ezarritakoaren arabera; halaber, kanpo-kontrolerako organoen fiskalizazio gida praktikoa (GPF-OCEX) erabili ditugu. Arau horien indarrez dugun erantzukizuna aurrerago deskribatuko dugu, txosten honetako "Kontuen Ganberaren erantzukizunak" atalean hain zuzen ere.

Kontu orokorrari buruzko fiskalizazioan aplikatu behar ditugun eskakizun etikoekin eta independentzia babestearen arlokoekin bat, entitatearekiko independenteak gara, fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria, eta egokia, jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia salbuespenekin emateko.

V. AUDITORETZAKO FUNTSEZKO GAIAK

Auditoretzako funtsezko auziak dira, gure iritzi profesionalaren arabera, esanahi handiena izan dutenak 2021eko kontu orokorra dela-eta egin dugun fiskalizazioan. Auzi horiek urteko kontuen osotasunari buruzko auditoretzaren testuinguruan eta kontu orokorreari buruzko iritzia taxutzerakoan jorratu ditugu, eta ez dugu bereiz azalduko horien gaineko iritzirik.

Txosten honetako "Aldatutako iritziaren oinarria" atalean azaldutako gorabeherak salbu, ez dugu gure fiskalizazioan funtsezkotzat jotako inolako gorabeheraren berririk ematen.

VI. AZPIMARRA EGITEKO PARAGRAFOA

Taula honetan, 2021eko ekitaldiko adierazle ekonomiko-finantzario batzuk azaltzen dira, eta aurreko ekitaldikoekin alderatzen:

Adierazlea	2020	2021	Aldea (%)
Aurrezki gordina	494.480	235.950	-52
Aurrezki garbia	397.155	175.314	-56
Zor bizia	1.046.641	1.145.619	9
Zorpetze maila (zor bizia/diru-sarrera arruntak)	% 44	% 47	7
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	-236.796	-138.551	41

Aurreko taula dela-eta, honako alderdi hauek aipatu behar ditugu:

2021ean, aurrezki garbia 175.314 milioi eurokoa izan zen. Aurrezki gordinaren eta aurrezki garbiaren zenbatekoak aurreko ekitaldikoak baino nabarmen txikiagoak izan dira. Aurrezki gordina ehuneko 52 gutxitu da, funtzionamendu gastuak diru-sarrera arruntak baino baino proportzio handiagoan areagotu direlako. Hala ere, zenbatekoa positiboa izateak erakusten du baliabide arruntak aski izan zirela funtzionamendu-gastuei eta zama finantzarioari erantzuteko.

Epe luzeko zor bizia, kontu orokorrean jasotzen den moduan, 1,1 milioikoa da, eta zorpetze-maila diru-sarrera arruntan ehuneko 47koa da.

Halaber, Udalak epe laburreko kreditu-eragiketak ditu hitzartuta diruzaintzako beharretarako, 300.000 euroko mugarekin. Kreditu-polizak urtero berritzen dira.

Etorkizuneko zama finantzarioak eragina izanen du hurrengo ekitaldietako aurrezki garbian; hori dela eta, beharrezkoa izanen da gastu arruntak murriztea, Udalaren bideragarritasun ekonomikoa arriskuan ez jartzeko.

Gastu arruntetarako diruzaintzako gerakinak 138.551 euroko saldo negatiboa dauka; hala ere, 2021ean oker kontabilizatutako maileguaren eragina kenduz gero, zenbateko negatiboa 588.551 eurokoa da.

Azken batean, adierazle ekonomiko finantzario nagusiek zorraren gehikuntza eta finantzatu beharko den diruzaintzako gerakin negatibo handia erakusten dute.

VII. BESTE GAI BATZUEI BURUZKO PARAGRAFOA

• COVID-19aren pandemiak 2021ean gastuak eta diru-sarrerak sortu zizkion Cadreitako Udalari. Zehazki, COVID partidetan kontabilizatutako gastuak eta diru-sarrerak 2021ean 16.070 eta 16.349 eurokoak izan ziren, hurrenez hurren. Hona xehetasunak:

COVID-19aren kudeaketa	Zenbatekoa
<i>Diru-sarrerak</i>	<i>16.349</i>
0-3 urtekoen zentrorako dirulaguntza, COVID-19agatiko errefortzua	16.349
<i>Gastuak</i>	<i>16.070</i>
Autonomoentzako eta enpresa txiki eta ertainentzako laguntza, COVIDa dela-eta	4.046
Udal eraikinen garbiketa	12.024

• Grant Thornton SLP auditoretza-enpresak, Nafarroako Kontuen Ganberarekin sinatutako kontratua betez, auditoretza egin zaion entitatearen kontu orokorrari buruzko fiskalizazioaren landa-lana egin du. Kontuen Ganbera enpresa horrek egindako lanean oinarritu da txosten hau egiteko.

• Ohartarazi egin behar dugu 2020ko kontu orokorrari buruzko auditoretzarik ez dela egin, eta, hortaz, 2021eko kontu orokorrean —konparazioa egite aldera— ekitaldi hori dela-eta jasotako informazioari buruzkorik ere ez.

VIII. BESTELAKO LEGE- ETA ERREGELAMENDU-ERREKERIMENDUEI BURUZKO TXOSTENA

Cadreitako Udalaren 2021eko Kontu Orokorrari buruz egin dugun finantza-auditoretzan aurreikusitako norainokoa aintzat hartuta, honako hauetan legezkotasuna bete ote den aztertu dugu:

• Langileen arloa, zeina abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuak arautzen baitu gehienbat; horren biez, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onetsi zen, bai eta hura garatzeko xedapenak ere.

• Administrazio-kontratazioa, zeina Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak arautzen baitu gehienbat.

Legezkotasunaren egiaztapen hori egiteko, zenbait auditoretza-prozedura erabili ditugu: ezarritako barne-kontrolaren egiaztapena eta auditoretza-lanaren planifikazioan aurreikusitako prozedura analitiko eta substantiboak.

Ebidentzia nahikoa eta egokia lortu dugu pentsatzeko ezen, aplikatutako prozedurekin, legezkotasun-alderdi esanguratsuenak bete direla, ondoren zehazten diren alderdietan izan ezik. Hona hemen aurkitutako ez-betetzeak:

Langileak

• Plantilla organikoak ez ditu jasotzen lanpostu bakoitzari esleituriko lansarien osagarriak, eta badira osagarri jakin batzuk araudian aurreikusita ez daudenak.

Kontratazio administratiboa

• Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen ez-betetze errepikatuak aurkitu dira; hain zuzen, zatikatze-debekua ez-betetzearen zantzuak, konkurrentzia-, publizitate- eta kasuko prozedura bidezko esleipen egokiaren printzipioak saihestuta.

• Halaber, Udalak guztira 30.371 euro ordaindu ditu 2021ean parkeak eta lorategiak mantentzeagatik, zerbitzu hori lizitatu gabe eta kontraturik egon gabe. Era berean, 2022an 58.080 euro ordaindu zaizkio enpresa berberari.

IX. CADREITAKO UDALAREN ERANTZUKIZUNA

Cadreitako Udalaren kontu-hartzailletza da kontu orokorra egiteko ardura duena. Halako moduz egin behar du non kontu horrek leialki irudikatu behar baititu Udalaren ondarea, finantza-egoera, aurrekontu-likidazioa eta 2021eko abenduaren 31n zegoen emaitza ekonomikoa, entitateari aplikatzekoa zaion finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat. Eta iruzur edo akatsen ondoriozko akats materialik gabeko kontu orokorra egiteko beharrezkoa den barne-kontrolaren ardura ere badu.

Entitatearen kontu orokorra 2022ko azaroaren 10eko Udalaren Osoko Bilkuran onetsi zen.

X. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure helburua da arrazoizko ziurtasun bat lortzea kontu orokorrean iruzur edo akatsen ondoriozko akats materialik ez egoteari buruz, bai eta gure iritzia duen auditoretza-txosten bat egitea ere.

Arrazoizko ziurtasuna lortzea esatean ziurtasun maila handia lortzea esan nahi dugu, baina horrek ez du bermatzen kontuen fiskalizazio jarduerari buruzko araudiari jarraikiz egindako fiskalizazio batek beti harrapatuko duenik akats material bat, baldin eta halakorik badago. Akatsak iruzur edo akatsen ondorio izan daitezke, eta akats materialtzat jotzen dira baldin eta, indibidualki edo modu metatuan, zentzuz aurreikus badaiteke eragina dutela txostenen erabiltzaileek kontu orokorrean oinarrituta hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan.

Kontuen fiskalizazio-jarduerari buruzko araudi indardunari jarraikiz egindako fiskalizazioaren parte den aldetik, gure iritzi profesionala aplikatzen dugu eta eszeptizismo profesionala mantentzen dugu auditoretza egiten ari garen bitartean. Gainera:

- Iruzur edo akatsen ondoriozko akats materialak izateko arriskuak identifikatu eta balioesten ditugu kontu orokorrean, auditoretzako prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditugu arrisku horiei erantzuteko, eta auditoretzako ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzari oinarria emateko. Iruzurraren ondoriozko akats material bat ez atzemateko arriskua handiagoa da errorearen ondoriozko akats materialaren kasuan baino; izan ere, iruzurra dagoenean tartean izan daitezke kolusioa, faltsutzea, berariazko omisioak, berariazko adierazpen okerrak edo barne-kontrolaren saihestea.

- Fiskalizaziorako beharrezkoa den ezagutza lortzen dugu barne-kontrolari buruz, inguruabarren araberako auditoretza-prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez.

- Ebaluatzen dugu ea kontabilitate-politika egokiak aplikatu diren eta arrazoizkoak ote diren kontabilitateko estimazioak eta kudeaketa organoak horien arabera emandako informazioa.

- Kontu orokorraren aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, emandako informazioa barne, eta ea kontu horrek zehatz irudikatzen ote dituen transakzioak eta azpian dauden egitateak.

Entitateko gobernu organoarekin harremanetan aritzen gara gai hauen inguruan, besteak beste: planifikatutako auditoretza-proben norainokoa eta haiek egiteko unea, fiskalizazioan aurkitutako gorabehera adierazgarriak, eta fiskalizazioan zehar identifikatzen ahal ditugun barne-kontrolako akats adierazgarriak. Entitateko gobernu organoari jakinarazi zaizkion alderdien artean ezartzen dugu zeintzuk izan diren kontu orokorraren fiskalizazioan garrantzi handienekoak eta, horrenbestez, auditoretzako funtsezko gaiak.

XI. MUNTAKO GOMENDIOAK

Egindako finantza-fiskalizazioaren ondorioz eta langileen nahiz kontratazioaren arloetan egingako azterketaren ondorioz, honako gomendio hauek egin behar ditugu:

- *Kontratuak esleitzea Kontratu Publikoetarako buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean ezarritako kasuko esleipen-prozeduren arabera, gardentasun, publikitate eta lehia askearen printzipioak errespetatzen direla.*

- *Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 230. artikuluan aurreikusitako neurriak hartzea Udalbatzak, diruzaintza-gerakinaren saldo negatiboetarako dagokienez.*

- *Kontu orokorra araudiak ezartzen duen epearen barruan onartzea.*

- *Egin beharrekoak diren aurrekontu-aldaketak garaiz izapidetzea, kredituen lotura juridikoko poltsak ez gaitzetzeko.*

- *Lansarien osagarriak egokitzea araudi indardunean ezarritakoari.*

Oharrak eta fiskalizazioaren aurkikuntza gehigarrietarako buruzko beste gomendio batzuk jasotzen dira 4. gehigarrian.

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Begoña Herrera Isasik proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

(Ignacio Cabeza del Salvador Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak alboan ageri den egunean elektronikoki sinatua)

1. GEHIGARRIA. 2021EKO KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Horra Udalaren 2021eko ekitaldiko kontu orokorraren egoera-orri garrantzitsuenak:

1.1 2021EKO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA**Gastuak, kapituluz kapitulu**

Gastuak	Hasierako kredituak	Aldaketa	Behin betiko kredituak	Betebehar onartuak	Ordainketak	% Betetzea	% Ordainketak
Langileria-gastuak	576.442	0	576.442	577.986	568.373	100	98
Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak	1.095.882	4.616	1.100.498	1.500.772	1.360.773	136	91
Finantza-gastuak	8.125	0	8.125	9.588	9.588	118	100
Transferentzia arruntak	171.108	-28.625	142.483	143.107	119.999	100	84
Inbertsio errealak	829.621	69.895	899.516	593.245	278.181	66	47
Kapital-transferentziak	20.000	1.400	21.400	21.400	21.400	100	100
Finantza-pasiboak	36.667	0	36.667	51.048	51.048	139	100
Guztira	2.737.845	47.287	2.785.131	2.897.146	2.409.363	104	83

Diru-sarrerak kapituluz kapitulu

Diru-sarrerak	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Eskubide aitortuak	Kobrantzak	% Betetzea	% Kobrantzak
Zuzeneko zergak	529.500	0	529.500	587.011	538.057	111	92
Zeharkako zergak	80.000	0	80.000	88.866	62.806	111	71
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	317.450	5.191	322.641	349.631	329.368	108	94
Transferentzia arruntak	1.000.660	0	1.000.660	1.025.038	1.024.434	102	100
Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak	403.825	0	403.825	407.269	407.269	101	100
Inbertsio errealen besterentzea	1.000	0	1.000	0	0	0	0
Kapital-transferentziak	105.410	42.095	147.505	82.095	82.095	56	100
Finantza-pasiboak	300.000	0	300.000	450.000	0	150	0
Guztira	2.737.845	47.287	2.785.131	2.989.910	2.444.029	107	82

1.2 AURREKONTUAREN EMAITZA

Kontzeptua	2020	2021
(+) Aitorturiko eskubide garbiak	3.210.312	2.989.910
(-) Aitorturiko betebeharrak garbiak	3.073.396	2.897.146
= Aurrekontuaren emaitza	136.916	92.764
Doikuntzak		
(-) Finantzaketaren desbideratze positiboa	139.539	0
(+) Finantzaketaren desbideratze negatiboa	10.633	65.000
(+) Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	0	0
= Aurrekontuaren emaitza doituia	8.009	157.764

1.3 DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	2020	2021	Aldea (%)
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	229.102	634.422	177
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	159.352	545.881	
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	548.873	487.037	
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	15.758	65.429	
(-) Bilketa zaileko eskubideak	-494.882	-463.925	
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	-614.926	-998.002	62
(-) Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	213.690	487.783	
(-) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	19.190	25.323	
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	382.045	484.896	
(+) Diruzaintzako funts likidoak	214.027	225.030	5
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0	0
Diruzaintzako gerakina, guztira	-171.796	-138.551	19
Diruzaintzako gerakina, finantzaketa lotuko gastuak direla-eta	65.000	0	-100
Diruzaintzako gerakina, baliabide lotuak direla-eta	0	0	0
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	-236.796	-138.551	41

1.4 BALANTZEA

Aktiboa	2020	2021*	Pasiboa	2020	2021*
A Ibilgetua	11.422.960	12.018.839	A Funts berekiak	10.193.624	11.223.918
1 Ibilgetu materiala	2.185.521	2.402.519	1 Ondarea eta erreserbak	9.806.096	11.109.258
2 Ibilgetu ez-materiala	5.583.677	0	2 Entregatutako ondasun eta eskubideak	-74.104	0
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	3.656.275	9.616.200	3 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	461.633	114.660
4 Herri-ondasunak	-2.513,72	0	Epe luzeko zorrak	1.046.667	1.145.619
5 Ibilgetu finantzarioa	0	120	Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak	1.061.667	1.145.619
C Zirkulatzailea	413.066	1.323.377	Epe laburreko zorrak	595.735	972.679
Aurrekontu itxiko eta aurrekontuz kanpoko zordunak	39.687	552.467	5 Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuz kanpoko hartzedunak	382.045	484.896
8 Ekitaldiko aurrekontuko zordunak	159.352	545.881	6 Ekitaldiko aurrekontuko hartzedunak	213.690	487.783
9 Kontu finantzarioak	214.027	225.030			
Aktiboa, guztira	11.836.026	13.342.216	Pasiboa, guztira	11.836.026	13.342.216

*Ganbera honek doituak zenbatekoak

1.5 EMAITZA EKONOMIKOAREN EGOERA-ORRIA

Zor	2020	2021*	Hartzeko	2020	2021*
61 Langileria-gastuak	553.039	577.986	70 Salmentak	238.323	346.161
62 Finantza-gastuak	8.854	9.588	71 Jabetza- eta enpresa-errenta	89.052	34.840
64 Kanpoko lanak, hornidurak eta zerbitzuak	1.168.161	1.500.772	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	1.146.530	1.427.089
67 Transferentzia arruntak	146.408	143.107	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	184.839	193.428
68 Kapital-transferentziak	20.000	21.400	75 Ustiapenerako dirulaguntzak	0	272
69 Kalkulatoriko gastuak	0	0	76 Transferentzia arruntak	1.150.118	1.167.911
			77 Kapitalaren gaineko zergak	13.969	16.022
			78 Beste diru-sarrera batzuk	148.010	70.106
D80 Ekitaldiko emaitza arrunt negatiboa	0	0	H80 Ekitaldiko emaitza arrunta	461.899	204.962
D82 Inbertsioen salmentetako galerak eta bestelako galerak			H82 Inbertsioen salmentetako irabaziak	0	0
D83 Aktibo finantzarioen salmentetako galerak	26	0	H83 Aktibo finantzarioen salmentetako irabaziak	0	0
D84 Bajak eta itxitako aurrekontuen deuseztapenak	240	90.383	H84 Altak eta preskripzioak, itxitako aurrekontuak	0	0
D89 Ekitaldiko emaitza ekonomiko negatiboa	0	0	H89 Ekitaldiko emaitza ekonomiko positiboa	461.633	114.660

*Ganbera honek doitutako zenbatekoak

2. GEHIGARRIA. CADREITAKO UDALA

Cadreita Nafarroako Goi Erriberako udala da, Tuterako merindadean dago, 27,3 km² ditu eta 2.045 biztanle zeuzkan 2021eko urtarrilaren 1ean.

2021eko ekitaldia ixtean, honako hauek ziren Udalaren datu ekonomiko nagusiak eta langile-arlokoak:

Entitatea	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 2021-12-31n
Udala	2.989.910	2.897.146	11

Udala Nafarroako Goi Erriberako Hiri Hondakin Solidoak kudeatzeko Mankomunitateko kide da, bai eta Arguedas, Valtierra, Villafranca, Milagro eta Cadreitako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatekoa eta Ebroko Kirol Mankomunitatekoa ere. Haien alde aitortutako gastua 59.926 eurokoa izan da 2021ean. Gaur egun, Udala Mairagako Mankomunitatean sartzeko prozesua gauzatzen ari da.

Halaber, Tuterako Udalari atxikitako Nafarroako Erribera garatzeko estrategietarako partzuergoan (EDER) parte hartzen du. Partzuergo horren xedea da Nafarroako Erriberaren garapen ekonomiko eta soziala ahalbidetzea, Erriberako biztanleen ongizatea eta bizi kalitatea bermatzeko, jasangarritasunaren, hazkunde adimendunaren eta gizarte kohesioaren printzipioetan oinarrituta, lurralde estrategia baten inplementazioaren bidez. Ekarpena 4.063 eurokoa izan da 2021ean.

Errege Bardearen Komunitateko entitate gozamen-kidea da Cadreita.

Udalak ez dauka ez erakunde autonomorik, ez merkataritza-sozietaterik.

Hona Udalak ematen dituen zerbitzu publikoak eta horiek emateko modua:

Zerbitzua	Zuzeneko kudeaketa Udala	Zeharkako kudeaketa Zerbitzu-kontratuak	Mankomunitatea
Argi publikoak	X		
Hilerria	X		
Hiri-hondakinak bildu eta tratatzea			X
Bide-garbiketa		X	
Edateko uraren etxeetako hornidura	X		
Estolderia			X
Gizarte zerbitzuak			X
Kirol instalazioak		X	
Hirigintza		X	
Udaltzaingoa	X		
Kulturaren sustapena eta kultur ekipamenduak		X	
0-3 urtekoen ikastetxea		X	

3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

Honako hauek dira Udalari aplikatzekoak zaizkion arauak, besteak beste:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzkoa.
- 3/2004 Legea, abenduaren 29koa, merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkideari buruzkoa.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, sektore publikoaren araubide juridikoari buruzkoa.
- 2/2015 Legegintzako Errege-dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena.
- 11/2020 Legea, abenduaren 30ekoa, Estatuko 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa (sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuen arloan aplikatu beharreko xedapenak).
- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, kontratu publikoei buruzkoa.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena, bai eta hura garatzeko xedapenak ere.
- 270/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, aurrekontuari eta gastu publikoari buruzkoa; 234/2015 Foru Dekretua, irailaren 23koa, aurrekontu egiturari buruzkoa, eta 273/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, Nafarroako Toki Administrazioarentzat Kontabilitate Sinplifikatuaren Instrukzio Orokorra onestekoa.
- Udalaren 2021eko aurrekontua betetzeko oinarriak eta Udalaren gainerako barne arauak.

4. GEHIGARRIA OHARRAK ETA FINANTZA-FISKALIZAZIOAN AURKITUTAKO BESTE GORABEHERA BATZUK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta argibide osagarri batzuk emanen ditugu, Ganbera honen ustez interesgarriak baitira fiskalizazio txosten honen hartzaile eta erabiltzaileen-tzat.

XI. atalean jasotakoez gain, orobat gehitu ditugu Ganbera honen ustez Udalaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren beste gomendio batzuk.

Alderdi orokorrak

Kontu Orokorrari buruz egindako berrikuspenetik, honako hau adierazi nahi dugu:

- Kontu-hartzaileak ez du eragozpenik jarri 2020an eta 2021ean.
- Villafrancako Udalak eta Cadreitakoak 2000. urtean sinatutako lankidetzaren hitzarmen baten bidez, kontu-hartzaileak lanaldiaren ehuneko 40an betetzen ditu bere eginkizuna. Lanaldiaren gainerako ehuneko 60an Villafrancako Udalean aritzen da lanean.
- Ez dago jasota udal ondasunak behar bezala identifikaturik eta balioetsirik duen inbentariorik. Inbentario bat egiteko aurrekontua eskatu da, eta aurreikuspenen arabera, 2023an amaituta egon da.
- 2020an eta 2021ean diruzaintzako gerakina negatiboa izan bazen ere, Udalak ez zuen gauzatu Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean gerakin negatiboko aurrekontu-likidazioetarako aurreikusitako neurririk.
- Guztira zazpi atxikitze juridikoaren poltsatuko kreditua gainditu da, 448.465 eurotan, kasuko aurrekontu-aldaketak ez baitira izapidetu, ezta onetsi ere.
- Diru-sarreraren bidez kredituak sortzeko aurrekontu-aldaketak alkatearen ebazpen bidez onesten dira, nahiz eta Udalbatzari dagokion horiek onestea, aplikatzekoa den araudiaren arabera.
- Ez da kutzako kontaktarik egiten.
- Kontu orokorra 2022ko otsailaren 10ean onetsi, lege ezarritako epearekiko atzerapenez, hurrengo ekitaldiko irailaren 1a baino lehen onetsi behar izaten baita.
- 2021eko ekitaldia ixterakoan, jasota dago banakako kaleratze objektiboagatik prozedura judizial bat, epai irmoaren zain, Iruñeko Lan-arloko Epaitegian, langile baten ekimenez izapidetutakoa. Txosten honen egunean, izapidetzen ari da Cadreitako Udalak Nafarroako Auzitegi Nagusiko Lan arloko Salak emandako epaiaren aurka aurkeztutako kasazio-errekurtsoa. Aipatu epaiak berretsi egin zuen Lan-arloko Epaitegiak emandako baiesteko epaia. Azaldutako prozedura judizialaren eragin ekonomikoa 102.189 eurokoa da. Oroitidazkian ez dago jasota gai horri buruzko informaziorik.

Txosten honetako XI. atalean hori dela-eta esandakoaz gain, honako hau gomendatzen dugu:

- *Kreditu-sorreraren aldaketak Udalbatzari aurkeztu onets ditzan, 270/1998 Foru Dekretuak ezartzen duen moduan.*
- *Kutzako kontaktak egitea hiru hilabetez behin edo, gutxienez, urte bakoitzaren amaieran.*

4.1 AURREKONTU OROKORRA

Udalaren 2021erako aurrekontua onetsi zenean, gastuen eta diru-sarreraren hasierako aurreikuspenek 2,74 milioi euro egiten zuten. Behin betiko onespena 2021eko apirilaren 12ko NAO-n argitaratu zen.

Aurrekontu-aldaketen ondoren, behin betiko aurreikuspenak 2,79 milioiokoa izan ziren.

Aurrekontu-likidazioa

2021ean, gastuak 2,90 milioikoak izan ziren, betetze- eta kobratze-ehunekoak 104 eta 83koak izan ziren, hurrenez hurren.

Diru-sarrerak 2,99 milioi euro egin zuten 2021ean, eta betetze- eta kobratze-ehunekoak 107 eta 82koak izan ziren, hurrenez hurren.

Taula honetan ageri dira Udalaren gastuen xedea eta finantzaketa, ehunekotan:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa, 2021	Finantza-iturria	Zenbatekoa, 2021
Langileak	20	Tributu bidezko diru-sarrerak	33
Bestelako gastu arruntak	57	Transferentzien bidezko diru-sarrerak	37
Inbertsio errealak	20	Ondare diru-sarrerak eta bestelako diru-sarrerak	15
Finantza-zama	3	Finantza-pasiboak	15

Hau da, funtzionamendu-gastuek guztizko gastuaren ehuneko 77 egiten dute eta finantza-zamak (interesak gehi amortizazioa), berriz, ehuneko hiru. Inbertsioek ehuneko 20 egiten dute.

Diru-sarreretan, tributu-jatorrikoek guztizkoaren ehuneko 33 egiten dute, eta transferentziek, ehuneko 37.

4.2 AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN PRINTZIPIOAK.

COVID-19ak ekarritako krisi sanitario, sozial eta ekonomikoa dela-eta, Europako Batzordearen gomendioei jarraituz, 2020ko urrian Diputatuen Kongresuak erabaki zuen aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren eta gastu-arauaren helburuak etetea 2020-2021 aldirako, nahiz eta hori ez den eragozpen izan toki entitateen zorpetze-operazioei buruzko baimenen araubidea mantentzeko.

Finantza-iraunkortasunaren printzipioak direla-eta, honako hau adierazi behar dugu:

a) Udalaren egiazko zor bizia 1,1 milioikoa zen 2021eko abenduaren 31n; zenbateko horrek diru-sarrera arruntan ehuneko 47 egiten du, ehuneko 110eko muga baino askoz ere gutxiago, alegia.

b) Hornitzaileei ordaintzeko batezbesteko epea araudiak ezarritako 30 eguneko gehienetik behera egon behar du. Ez dago jasota hornitzaileei ordaintzeko batezbesteko epearen kalkulua.

Txosten honetako "Muntako gomendioak" XI. atalean hori dela-eta esandakoaz gain, *gomendatzen dugu hornitzaileei ordaintzeko batezbesteko epea kalkulatzea eta hiru hilabetez behin argitaratzea, araudian ezarritakoari jarraikiz.*

4.3 KUDEAKETA-ALOR GARRANTZITSUAK

4.3.1 Langile gastuak

Langileria-gastuak 577.986 eurokoak izan ziren, ekitaldian sorrarazitako gastu guztien ehuneko 20, eta haien betetze-maila ehuneko 100ekoa izan da.

Hona aurreko ekitaldikoekiko alderaketa:

Kontzeptua	ABG, 2020	ABG, 2021	Aldea (%)
Gobernu-organoen oinarrizko ordainsariak	32.027	32.027	0
Funtzionarioen oinarrizko ordainsariak	130.057	137.998	6
Lan-kontratudun finkoen ordainsariak	16.881	17.036	1
Aldi baterako lan-kontratupekoen lansariak	201.879	220.034	9
Gizarte kuotak	163.523	166.232	2
Langileen gizarte gastuak	8.671	4.658	-46
Guztira	553.039	577.986	5

Langile gastuak ehuneko 5 handitu dira 2020koekin alderatuz gero, iraupen luzeko bajak dituzten langileak ordezkatzeko aldi baterako lan-kontratudunen kontratazioa dela-eta.

2021eko abenduaren 31n, honako lanpostu hauek zeuden plantilla organikoan:

Sailkapena	2021
Funtzionarioak/administrazio-kontratua duten langileak	5
Langile lan-kontratudunak	6
Guztira	11

Plantillako 11 postuetatik, 5 funtzionario araubidekoak dira. Plantilla ez da aldatu 2020koarekin alderatuta.

Honako hau da lanpostuen egoera:

Langileak	2021
Plantillako langileak	11
Beteta	2
Hutsik	9
Lanpostu hutsak lanpostu guztien gainean (%)	82
Bete diren lanpostu hutsak	9
Bete diren lanpostu hutsak (%)	100
Bete gabeko lanpostu hutsak	0
Bete gabeko lanpostu hutsak (%)	0

2021ean, plantillako 9 lanpostu hutsik daude; eta horien ehuneko 100, aldi baterako beteta.

Egin den azterketatik honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Udalaren plantilla organikoaren behin betiko onespina 2021eko apirilean argitaratu zen NAO. Plantilla ez zaio egokitzen Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutua onesten duen 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuan xedatutakoari.

2022an plantillaren aldaketa bat onetsi zen, zeinaren behin betiko onespina 2022ko abuztuaren 22an argitaratu baitzen NAO. Aldaketaren xedea zen B mailako kontu-hartzaile postua amortizatzea eta postu hori A mailara aldatzea.

- Plantilla organikoak akatsak ditu, ez ditu lanpostu guztien lansariak jasotzen eta kasu batzuetan ez ditu osagarriak behar bezala islatzen. Halaber, abenduaren 31ko langileen zerrendak ez ditu islatzen, zenbaitetan, Udaleko langileen antzinatasuna, gradua eta jardunaldi-portzentajea. Udalak hasiera eman dio 2023ko plantillaren onespinari, aipatu akatsak zuzenduta.

- Langile lan-kontratudunen lansari osagarriak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren mendeko erakunde autonomoen zerbitzuko lan-kontratudunen hitzarmen kolektiboan daude zehaztuta, nahiz eta udalak ez duen hari atxikitzeari buruzko erabaki espresurik hartu. 2021ean prestasun bereziaren osagarria eta osagarri iragankorra ordaintzen ari ziren. Osagarri horiek ez daude hitzarmen horretan jasota, kasuko ebazpenean justifikatuta agertzen badira ere.

- Lan-kontratudunek betetako lanpostu hutsen kopurua oso handia da, eta 2021eko ekitaldian ez da postuak betetzeko deialdirik egin. 2022an lan eskaintza publikoa onetsi zen, zazpi lanpostu-ekin. Lan eskaintza hori aztertu dugu eta enplegu publikoa egonkortzeko araudiaren arabera dela ondorioztatu dugu. Zazpi lanpostu horien deialdia NAOn argitaratu zen 2022ko azaroaren 28an.

- Kontu-hartzailearen lansariak 4. kapituluaren kontabilizaturik daude udalerriei eginiko transferentzia arrunt gisa –2021ean 23.205 euro egin zuten–. Villafrancako Udalak eta Cadreitakoak baidute lankidetzaren hitzarmen bat bi udal horietarako kontu-hartzaile bat kontratatuzko. Kontu-hartzaile lanaldiaren ehuneko 60an aritzen da Villafrancako Udalean, eta gainerako ehuneko 40an Cadreitako Udalean. Kontu-hartzaile lanpostuaren lansariak Villafrancako Udalaren plantilla organikoan ezartzen dira, haren mendean baitago organikoki.

- Nomina kanpoko aholkulari zerbitzu batek egiten du eta Udalak ez du kontrol nahikorik gauzatzen nominen prozesu globalari dagokionez.

- 2021eko urriko nominak aztertu ditugu, eta egiaztatu dugu ordainsarien kontzeptuak zuzen aplikatu direla.

Txosten honetako “Muntako gomendioak” XI. atalean hori dela-eta esandakoaz gain, honako hau gomendatzen dugu:

- *Nominaren kontu-hartzea egitea eta egiaztatzea ordainsariak plantilla organikoan onetsita-koari egokitzen zaizkiola.*

- *Plantilla organikoan lanpostuen ordainsari osagarri guztiak jasotzea.*

- *Urtero onestea abenduaren 31n dauden langileen zerrenda, langileen maila, gradua, antzinatea, egoera administratiboa eta gainerako inguruabarrak adierazita, araudiak ezarritakoari jarraikiz.*

4.3.2 Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak

Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak 2021eko ekitaldian 1,5 milioi eurokoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko 52 egiten dute; haien betetze-maila ehuneko 136koa da.

2020ko ekitaldiarekin alderatuta, gastu horiek ehuneko 28 egin zuten gora, xehakaturik jarraian azaltzen denaren arabera:

Kontzeptua	ABG, 2020	ABG, 2021	Aldea (%)
Makinen, instalazioen eta tresneriaren errentamendua	5.776	6.010	4
Garraio-elementuen errentamendua	4.052	4.052	0
Azpiegiturak eta ondasun naturalak	52.967	62.530	18
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak.	68.624	84.085	23
Makineria, instalazio teknikoak eta tresneria	50.506	60.202	19
Informazio-prozesuetarako ekipamenduak	31.889	34.807	9
Bulegoko materiala	20.521	10.513	-49
Hornidurak	238.654	288.934	21
Komunikazioak	21.321	23.106	8
Garraioak	408	629	54
Aseguruak	14.117	13.216	-6
Zergak	264	158	-40
Askotariko gastuak	77.233	213.755	177
Beste enpresa batzuek egindako lanak	574.033	693.194	21
Dietak	7.658	5.581	-27
Garraioa	139	0	-100
Guztira	1.168.161	1.500.772	28

Nabarmentzen dugu askotariko gastuen atalak ehuneko 177 gora egin duela; igoera horren ehuneko 60 jaietako gastuen igoerak eragina da eta ehuneko 24, berriz, gastu juridiko eta auzietako enbrenaren ondorio.

Gastuen honako lagin hau aztertu dugu (kapituluko guztizkoaren ehuneko 49 egiten dute).

Kontzeptua	ABG, 2021
0-3 urtekoen zikloaren kudeaketa	150.547
Bide-garbiketa, garbigunea, berdeguneen mantentze-lanak	108.421
Argiteria publikorako energia elektrikoa	93.538
Atezaintzaren kanpoko kudeaketa eta kiroldegiaren mantentze-lanak	91.181
Festetako gastuak	86.891
Udal eraikinen garbiketa	81.483
Juridikoak, auziak eta kalte-ordainak	43.188
Uraren eta kontagailuen etxez etxeko sarearen mantentze-lanak	46.027
Ur-sareko ihesen ikuskapena eta berrazterketa	35.922
Guztira	737.198

Egin dugun berrikuspenetik ondorioztatzen dugu ezen, oro har, fiskalizaturiko laginean gastuak justifikatuta eta egokiro kontabilizatuta eta ordainduta daudela. Hala eta guztiz ere, honako alderdi hauek adierazi nahi ditugu:

- Gas-ihesak ikuskatzeko eta berrikusteko gastua, 35.922 euro jotzen duena, 2019an egindako lanei dagokie.
- Azterturiko adjudikazioetako bat bera ere ez da argitaratu Kontratazio Atarian.
- Udalak ez du Kontratazio Atarian argitaratzen hiru hilez behin egindako kontratu txikien zerrenda.

Kontratuen lizitazioa eta adjudikazioa

- Udal-kiroldegia 2021eko urtarriletik 2022ko urtarrilera bitarte kudeatzeko kontratua GUR SPORT SL enpresari adjudikatu zitzaion prozedura sinplifikatuaren bidez, 56.950 euroan, BEZik gabe. Kontratu hori betez, adjudikaziodunak bere arrisku eta menturara hartu beharko ditu kirol-instalazioen kudeaketa integraleko, mantentze-lanetako, jendeari arreta emateko, garbiketako eta jarduerak kudeatzeko zerbitzuak. 2021ean, adjudikazioaren zenbatekoaz gain, Udalak 16.574 euro (BEZik gabe) ordaindu zituen lan osagarrien, udan ordutegia luzatzearen eta administrazio-zereginen kontzeptuan. 2021eko azaro eta abenduko ordu estrak fakturatu ziren 2022an, 9.404 euro jotzen zutenak. Beraz, guztizko zenbatekoa kontratu osoaren ehuneko 45 egiten du. Gurez ustez, lan horiek ez daude justifikaturik, fakturatutako kontzeptuak jada kontratuaren xedean sartuta baitzeuden.

2022ko otsailean beste adjudikazio bat egin zitzaion enpresa berari prozedura sinplifikatuaren bidez eta urte baterako (2023ko otsailera arte), 59.800 euroan, BEZik gabe. 2020az geroztik, urtero enpresa adjudikaziodun berari adjudikatzen zaio zerbitzu hori.

- 2021eko martxotik 2022ko martxora bitarte bide-garbiketako zerbitzua emateko eta garbigunea kudeatzeko kontratua GUR SPORT SL enpresari adjudikatu zitzaion prozedura sinplifikatuaren bidez, 57.875 euroan, BEZik gabe. Bost eskaintza eskatu ziren, eta bi baino ez ziren aurkeztu; horri dagokionez, esan behar dugu aurkeztutako bi eskaintzak ia berdinak direla.

2022ko martxoan kontratu hori berriz adjudikatu zitzaion enpresa berari, urte baterako eta 53.800 euroan, BEZik gabe. 2020az geroztik, urtero enpresa adjudikaziodun berari adjudikatzen zaio zerbitzu hori.

Baldintza-agirietan aurreikusitakoarekin bat, adjudikaziodunak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu du adierazteko betetzen dituela prestazioak gauzatzeko lege-betekizunak eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalari buruzkoak. Enpresa horren merkataritza-erregistroko informazioa eskatu dugu, eta egiaztatu dugu 2001az geroztik ez duela konturik aurkeztu; gainera, haren xede soziala kirol instalazioak kudeatzeko Ekonomia Jardueren Sailkapen

Nazionaleko kodeari dagokiola ageri da Erregistro horretan. Hortaz, ez da inon agertzen pertsona juridiko adjudikaziodunaren xede soziala bat datorrenik kontratatutako prestazioen helburuarekin.

- Edateko uraren sarea mantentzeko eta berrikusteko eta ur-kontagailuak irakurtzeko zerbitzuaren kontratua GUR SPORT SL enpresari adjudikatu zitzaion 37.875 euroan (BEZik gabe), 2021eko martxotik 2022ko martxora arteko aldirako.

2022ko martxoan berriz adjudikatu zitzaion enpresa berari, urte baterako eta 37.450 euroan. Lehen aipatu dugunarekin bat, ez da inon agertzen pertsona juridiko adjudikaziodunaren xede soziala bat datorrenik kontratatutako prestazioen helburuarekin.

Azken batean, kontratuaren xede den prestazioaren iraupena zatikatu eta haren zenbatekoa murriztu da; horren ondorioz, honako printzipio hauek saihestu dira: lehia, publikotasuna eta adjudikazio egokia dagokion prozeduraren bidez. Adierazitako kontratu guztiak enpresa berari esleitu zaizkio, baita xede sozialaren barruan sartzen ez direnak ere, merkataritza-erregistroko informazioaren arabera. Hori horrela, honako hauek izan dira GUR SPORT SL enpresari esleitutako kontratu berrikusiak:

a) Udal kiroldedia kudeatzeko kontratua 2020., 2021. eta 2022. urteetarako, guztira 172.650 euroan.

b) Bide-garbitzeko zerbitzua emateko eta garbigunea kudeatzeko kontratua 2020., 2021. eta 2022. urteetarako, guztira 169.225 euroan.

c) Edateko uraren sarea mantentzeko eta berrikusteko eta ur-kontagailuak irakurtzeko zerbitzuaren kontratua 2020., 2021. eta 2022. urteetarako, guztira 112.875 euroan.

- Berdeguneen mantentze-lanetako gastua, 2021eko uztailetik abendura bitarte, 30.371 euro da (25.100 euro, BEZik gabe); dena den, zerbitzua ez da lizitatu eta ez dago kontraturik. Era berean, 2022an 58.080 euro ordaindu zaizkio enpresa berari. GUR SPORT SL enpresak ematen du zerbitzu hori.

Txosten honetako "Muntako gomendioak" XI. atalean hori dela-eta esandakoaz gain, honako hau gomendatzen dugu:

- *Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzea hala adjudikazio guztiak nola hiru hilez behin egindako kontratu txikien zerrenda.*

- *Erantzukizunpeko adierazpenean adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko ahalmenak erabiltzea, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.*

4.3.3 Inbertsioak

Inbertsioak 593.245 eurokoak izan ziren. Gastu guztien ehuneko 20 da hori.

Behin betiko kredituen ehuneko 66 bete da. Betetze maila apal hori Zoladura eta Sareak izeneko obraren ondorio da, 275.506 eurokoa, zeina 2022an amaitu baita.

Ekitaldiko inbertsiorik esanguratsuenak aztertu ditugu (6. kapituluko guztizkoaren ehuneko 85).

Inbertsioa	Gastua
Zoladura eta sareen exekuzioa Nafarroako etorbidean	314.114
Inbertsioak Dukeen Etxeko beheko oinetan eguneko zentroa egiteko	62.134
Guztira	376.248

2021eko lizitazioak berrikusi ditugu, bai eta haien adjudikazioa eta gastuaren betetze-maila ere:

Xedea	Prozedura	Lizitazaile kopurua	Adjudik.* zenbatekoa	Adjudikazioaren merkatzea (%)
Nafarroako etorbidea egokitzeko obra	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	5	562.684	15
Dukeen Etxeko beheko solairuaren eraberritze-obra	Sinplifikatua, Europar Batasuneko atalasetik behera	2	62.133	4

* BEZa barne

Oro har, aipatutako kontratuak adjudikatzeko espedienteak araudiaren arabera izapidetu dira eta haiekin zerikusia duten 2021eko gastuak behar bezala kontabilizatuta daude. Hala ere, gora-behera hauek azpimarratu behar ditugu:

- Kontratuetan ezarritako betetze-baldintza bereziak lan- eta ingurumen-araudiaren arabera nahitaez bete beharrekoak dira. Baldintza-agiriak ezartzen du obra amaitzean nahitaezkoa dela kontratuaren exekuzio baldintza berezien betetzeari buruzko memoria bat aurkeztea, baina ez da inon agertzen.

- Nafarroako etorbidea egokitzeko obran honako alderdi hauek aipatu behar ditugu:

Lizitazaileak ez du exekuzio-epea bete. 2021eko abenduan, adjudikaziodunak epea hilabete luzatzeko eskaera aurkeztu zuen; obra amaierako akta 2022ko otsailekoa da. Laugarren ziurtagiria 2022ko martxoaren 31n sinatu zen, eta bosgarrena 2022ko ekainean. Obrak hartzeari dagokion akta 2022ko ekainekoa da. Azken batean, ez da baimendu epearen luzapena, eta ez dira aplikatu baldintza-agirietan ezarritako zehapenak; nolana ere, enpresak horren berri eman zuen jada.

Azkenean, ordainketari dagokionez, 30 eguneko epea nabarmen gainditu da.

Udalak ez ditu egiaztatu baldintza-agirian ezarritako konpromisoak bete izanaren justifikazioak, gizarteratze-zentroekin eta enplegu zentro bereziekin egiten den azpikontratazioaz bezainbatean.

Txosten honetako "Muntako gomendioak" XI. atalean hori dela-eta esandakoaz gain, honako hau gomendatzen dugu:

- *Kontratuaren baldintza-agirietan ezartzea kontratua betetzeko baldintza bereziak, xede dituen prestazioez bezainbatean. Hala badagokio, egiaztatzea kontratua betetzean baldintza horiek betetzen direla.*

- *Kontratuaren adjudikazioa Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzea ezarritako epearen barruan.*

- *Adjudikaziodunari eskatzea adjudikazio-irizpide gisa sartutako konpromisoak bete izanaren justifikazioa, baldintza-agirian ezarritako moduan.*

- *Ordainketak araudian ezarritako epean egitea.*

- *Kontratuaren formalizazio- eta exekuzio-epeak betetzea galdegitea, exekuzio-epearen luzapena onetsita, hura beharrezkoa balitz eta justifikatuta egonez gero.*

4.3.4 Transferentzia arruntetako eta kapital-transferentzietako gastuak

Transferentzia-gastuak 2021ean 164.507 eurokoak izan ziren, eta honako onuradun hauei eman zitzaizkien:

	Transferentzia arruntak		Kapital-transferentziak	
	Aitortutako betebeharrak	2021/2020 aldea (%)	Aitortutako betebeharrak	2021/2020 aldaketa (%)
Udalerriak	23.205	8		
Irabazi asmorik gabeko erakundeak	45.912	-12	21.400	7
Mankomunitateak	59.927	7		
Partzuergoak	4.063	15		
Merkataritza-sozietateak, entitate publikoak	10.000	100		
Beste dirulaguntza batzuk entitate pribatuei	0	-100		
Guztira	143.107	-2	21.400	7

Transferentzia arruntengatiko gastuak 143.107 euro izan ziren, 2021ean baino ehuneko bi gutxiago.

2021ean emandako kapital-transferentziak 21.400 euro izan ziren, eta ehuneko 7 igo dira 2020arekin alderatuta.

Transferentzien honako lagin hau aztertu dugu:

Kontzeptua	ABG, 2021
<i>Transferentzia arruntak</i>	
Kontu-hartzailea partekatzen duten udalerriei	23.205
Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari	46.927

Transferentzia arruntak "Kontu-hartzailea partekatzen duten udalerriei" partidak barne hartzen ditu Villafrancako Udalarekin partekatzen den kontu-hartzailearen kontratazio-ordainsariak.

Oro har, aztertutako transferentzia eta dirulaguntza guztiak egokiro onetsita eta kontabilizatuta daude, kasuko akordioen edo deialdien arabera.

4.3.5 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

2021ean tributu, prezio publiko eta bestelako diru-sarrerengatik aitorturiko eskubide garbiak 1.025.508 milioi eurokoak izan ziren. Kopuru hori diru-sarrera guztien ehuneko 34 da.

Honako hau da 2021eko eta 2020ko ekitaldien arteko alderaketa:

Kontzeptua	AEG 2020	AEG 2021	Betetakoa (%)	2021/2020 aldaketa (%)
Zuzeneko zergak	501.017	587.011	111	17
Zeharkako zergak	149.983	88.866	111	-41
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	290.428	349.631	108	20

Zergak

2021eko ekitaldian zergengatik aitortutako eskubide garbiek 675.877 euro egin zuten. Eskubideen guztizkoaren ehuneko 23 egiten dute, eta honako zerga-figura hauei dagozkie:

Deskribapena	AEG 2020	AEG 2021	Diru-sarrera guztien gainean (%)	Aldaketa (%) 2021-2020
Zuzeneko zergak				
Landa-lurraren kontribuzioa	27.977	28.921	0	3
Lurraren kontribuzioa	285.811	364.545	36	28
Zirkulazioaren gaineko zerga	137.999	143.110	6	4
Lurren balioaren igoseraren gaineko zerga	3.727	9.213	0	147
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	45.503	41.221	2	-9
Zeharkako zergak				
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	149.983	88.866	5	-41

2021ean indarrean egon den balorazio-ponentzia 2017an onetsi zen. Cadreitako Udalaren Osoko Bilkurak, 2021eko azaroaren 4an, balorazio-ponentziaren eguneraketa abian jartzea onetsi zuen.

Udalak aplikatutako zerga-tasak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak jasozten dituen tarteetan daude, honako taula honetan ikus daitekeen bezala:

Zerga mota	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,29	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza	20	8-25
Eraikuntza, instalazio eta obrak	5	2-5

Ekitaldian aitorturiko diru-sarreraren ausazko lagin bat hartu eta egiaztatu dugu, oro har, zergen likidazioa eta diru-bilketa ordenantzei eta kasuko arauari jarraituz egin direla.

Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrera batzuk

Tasak, prezio publikoak eta aitortutako bestelako diru-sarrera garbiak 349.631 eurokoak izan dira 2021. urtean. Ekitaldiko eskubide guztien ehuneko 12 egiten dute, eta honako kontzeptu hauei dagozkie:

Kontzeptua	Zenbatekoa	Aitortutako eskubide garbien guztizkoaren gainean (%)	Aldea (%) 2021/2020
Tasak eta prezio publikoak	305.942	10	16
Beste diru-sarrera batzuk	43.689	2	-58

Honako partida hauen lagin bat aztertu dugu:

Kontzeptua	Zenbatekoa	Aldea (%)
Bizilagunen ur-horniduraren kuota	170.561	-0,51
Igerilekuen diru-sarreraren kuota	50.183	102

Egindako lanarekin egiaztatu dugu ezen, oro har, likidazioa eta kontabilitate-aitortza aplikatzea den araudiaren arabera egin direla.

4.3.6 Transferentziengatiko diru-sarrerak

Transferentzia eta dirulaguntza arrunten eta kapitalekoen bidezko diru-sarrerak 1.107.133 euro izan ziren, eta 2020arekin alderatuta, honako hau izan zen aldaketa:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak		Aldea (%)
	2020	2021	2021/2020
Transferentzia arruntak	1.017.431	1.025.038	1
Kapital-transferentziak	248.224	82.095	-67

Transferentzia- eta dirulaguntza-partiden honako lagin hau aztertu dugu:

	Zenbatekoa
<i>Transferentzia arruntak</i>	
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza, 0-3 urtekoen zentroaren kudeaketa- eta funtzionamendu-gastuetarako	100.672
<i>Kapital-transferentziak</i>	
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza (zuzenketa) parkeen estalkietarako	40.000
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza, kontsultategia handiagotzeko	42.095

Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntzen berrikuspena honetan datza: egiaztatzea koherenteak ote diren udalaren aurrekontu-informazioa eta Foru Komunitateko Administrazioaren aurrekontu-informazioa, bai eta informazio horren euskarri diren administrazio-egintzak eta udalak aurkeztutako justifikazioak ere.

Egindako lanetik ondorioztatzen dugu, oro har, aitortutako eskubideen likidazioa justifikatuta dagoela aplikatu beharreko araudiaren arabera.

4.3.7. Ondare bidezko diru-sarrerak

Ondare bidezko diru-sarrerak 407.269 eurokoak izan ziren, udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 14, alegia. Bardeako Komunitatearen transferentzia jasotzen du, zeinak 2019az geroztik zenbateko hori baitu.

4.3.8 Finantza-pasiboak

Finantza-pasiboen bidez kontabilizatutako diru-sarrerak 450.000 euro izan ziren 2021ean.

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak		Aldea (%)
	2020	2021	2021/2020
Epe luzeko maileguak finantza-entitateekin	600.000	450.000	1

2021eko martxoan, Osoko Bilkurak mailegu bat ituntzea onetsi zuen Nafarroako etorbideko zoadura-obrak egiteko, baina kontratua ez zen 2022ko urtarrilaren 10era arte sinatu.

2021eko ekitaldia bukatzean, jasotako maileguen guztizkoari dagokionez ordaintzeko zegoen kapitalak 1.145.619 euro jotzen zituen.

Mailegua	Zenbatekoa	Data	Kapital amortizatu	Ordaintzeko dagoen kapitala (2021)
Zola jartzea (3. fasea) eta argiteria	550.000	2007/11/22	36.667	110.000
Inbertsioak finantzatzea (2017-2020)	600.000	2020/07/08	14.381	585.619
Nafarroako etorbideko azpiegitura	450.000	2021/12/31	0	450.000

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**CADREITAKO UDALAREN 2021EKO EKITALDIKO KONTU OROKORREN AUDITORIA-TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**

Kontuen Ganberak Cadreitako Udalaren 2021eko kontu orokorreari buruz egin duen behin-behineko txostena jasota, ezarritako epearen barruan honako alegazio hauek egiten dira:

Lehena.- Lehenengo eta behin eskerrak eman nahi dizkiegu langileei egindako lanarengatik, hala tokian bertan nola Ganberaren bulego zentraletan, eta txostenean jasotako aholku eta gomendioengatik ere.

Bigarrena.-Udal-inbentarioaren aipamenei dagokionez, identifikatuta eta dokumentatuta daude (hala jasota dator txostenaren zati batean); hain zuzen, 2022ko abuztuaren 17ko Osoko Bilkuran gehiengo osoz erabaki zen inbentarioa egitea egoera-balantzean sartze aldera. Une honetan landa-lana egiten ari da.

Hirugarrena.-450.000 euroko mailegua kontabilizatzeko moduari dagokionez, Udalaren kontu-hartzailetzaren irizpidearen arabera egin da. Behin-behineko txostenaren "iritziaren oinarria, salbuespenekin" atalean aipatzen den bezala kontabilizatu izan balitz, finantzaketa-desbideratze gisa jaso beharko zen hala aurrekontu-emaiztan nola diruzaintza-gerakinean, kontabilitateko udal-emaizta bereko aurrekontu-emaizta doitu batekin eta diruzaintza-gerakinarekin. Dena den, antzeko egoerarik gertatuz gero, Kontuen Ganberaren txostenean adierazitako kontabilitate-irizpideari jarraituko zaio.

Laugarrena.- Kontu orokorraren onespeneren atzerapenari dagokionez, txostenean aipatzen den bezala (22. orrian), bulegoetako langileen iraupen luzeko bajek eragin dute hein handi batean.

Bosgarrena.-Txostenean aipatzen da aztertutako kontratazio bat bera ere ez dela argitaratu kontratazio-atarian; horren harira, atxikita doa kontratazio-atarian egindako argitaratzearen dokumentazioa.

Seigarrena.-Udal honek oso positiboki balioesten du egindako lana eta txostena, oro har, zeina bere egiten baitu. Nafarroako Kontuen Ganberak emandako gomendioei men egiteko xedez hartu beharreko neurri eta erabaki guztiak hartuko ditu.

Cadreitan, sinadura elektronikoaren egunean.

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA DELA-ETA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Eskerrak ematen dizkiogu Cadreitako Udaleko alkateari aurkeztutako alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari eransten zaizkio eta hori behin betikotzat hartzen da, egindako fiskalizazioaren azalpena direlako eta ez dutelako edukia aldatzen.

(Ignacio Cabeza del Salvador Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak digitalki sinatua alboan ageri den egunean)

